

6 mantangorri

CO

AZOKA



LIBURUA

Izenburua: 'Katalin eta animalien liburu handia'.**Testua eta marrazkiak:** Liesbet Slegers.**Itzulpena:** Lierni Ugartemendia. **Orrialde kopurua:**56 orrialde, koloretan. **Argitaletxea:** Ibaizabal.

buruan proposatzen diren jardue-
ra eta ariketa errazen bidez.

**Informazioa emateaz
gain, beraz, jokoak ere
proposatzen dira?**

Bai, hala da. Animalia multzo bat aurkeztu ostean, hainbat jolas, gal-
dera edota jarduera proposatzen
zaizkie irakurleei: lotu objektu ba-
koitza dagokion animaliarekin; bi-
latu lekuz kanpo dauden anima-
lia; bilatu animalien bizilekua; as-
matu zein den animalia
bakoitzaren jantzia edo larruaza-
la; bilatu norena den aztarna...

Tarteka, mezu esanguratsuak
eta aholkuak ere igortzen
ditu. Esaterako, ondoren
aholkua aipatzen da: ongi
dago animaliekin jolastea
eta haiet laztantzea, baina ba-
kean utzi behar ditugu, ez direlako
jostailuak.


**Etengabe irakurleen parte
hartza lortu nahi da, ezta?**

Bai, hala da. Hasiera-hasieratik, Ka-
talinekin batera animaliak ezagu-
tzen joateko gonbita egiten due-
netik, irakurleen parte hartza
lortu nahi du egileak. Eta, ondoren,
irakurleen parte hartza lortze-
ko, askotariko jolasak, proposame-
nak eta jarduerak proposatzen
dizkie: galderak, asmakizunak, jo-
koak, gauzak bilatu...

Irakurleen parte hartza, be-
raz, ezinbesteko da liburuan.
Hala, liburuaren beste protagonis-
ta bat bihurtuko da irakurlea. Libu-
ru oso dibertigarria eta alaia dela
esango nuke. Animalien mundu za-
bala eta askotarikoa modu diberti-
garrian ezagutzeko aukera ematen
du. Azken batean, ez da jolasteko
edota irakurtzeko liburua soilik,
gauza berriak ikasteko liburua ere
bada.

**Marrazkiek berebiziko
garrantzia dute.**

Bai, testuak bezainbeste edo
gehiago. Azken batean, liburuak ez
du testu handirik. Esaldi solteak
baino ez dira ageri, informazio uga-
ri marrazki bidez ematen delako.
Testuen zein marrazkien egilea
pertsona bera da, eta horrek tes-
tuak eta marrazkiak osagarriak
izatea dakar. Marrazkiak handiak
dira, oso koloretsuak, oso garbiak,
argiak eta oso simpleak.



Eukene Herrera

IBAIZBAL ARGITALETXEKO ARGITARATZAILEA

«Irakurlearen parte hartza ezinbesteko da liburuan»

Katalini izugarri gustatzen zaizkio animaliak: handiak zein txikiak; etxeen bizi di-renak eta baserrikoak... Haiei begira eta haienkin jolasten igaroko luke eguna. Inguruan eta urrunean dauden animaliak bildu, eta liburu honetan aurkezten dizkie irakurleari. Jolasen eta askotariko jardueren bidez, animalien ezaugarriak eta bizi-moduak hobeki ezaugutuko dituzue.

Haur guztiei bezala, Katalini ere izugarri gustatzen zaizkio animaliak.

Katalin pertsonaia ezaguena da haurren artean, Katalin bildumako protagonista baita bera. Formatu txikiko hainbat liburu argitaratuak ditugu, baina aspalditik formatu handiko liburu bat edukitzeko asmoa genuen, eta, haurrei animaliak izugarri gustatzen zaizkienet, animalien inguruko liburua egitea bururatu zitzaien. Eta hemen-txe dago emaitza. Liburuaren hasieran, animaliak oso gogo-dituela aitortzen du Katalinek, eta, elkarrekin, animaliak ezagutzeko gonbita egiten die irakurleei.

Eta zein animalia aurkezten dizkie?

Gertukoak edo inguruan ditugun animaliak aurkezten hasten da; etxeen edota baserriean daudenak, alegia: ahuntza, zaldia, txerria, oilarra, ardia, behia... Lorategian aurki daitezkeen animaliak ere aipatzen dira. Gero, animalia arriskutsuak eta basatiak zerrenda-

tzen hasten da: tigrea, krokodiloa, elefanteak, hipopotamoak, haritzak... Animalia jostalariak ere aipatzen ditu: akuriak, untxiak, arrainak, katuak, txakurrak... Azken taldean denetariko animaliak aipatzen dira: hegaztien dutenak, salto egiten dutenak... Hurrentzako animalia ezezagunagoak izan daitezkeelakoan, animalia bakoitzaren ezaugarriak aipatzen dira: nor igotzen den zuhaitzeta; zein den ona salto egiten; nor den bizkorrena korrika...

Animaliei buruz zein informazio ematen da?

Animaliak aurkezteaz gain, haien bizi-moduarekin zerikusia duten datuak ematen dira: zer jaten duten, zein diren haien kumeak, nolako larruazala duten, zein soinu ateratzen duten, non lo egiten duten, nola bizi diren, zein itxura duten, zein jarre-rak eta ohiturak dituzten, haien aztarnak... Haurrei ezagun egiten zaizkien hainbat kontzeptu aipatzenten dira. Badira ezezagun egingo zaizkien beste hainbat datu ere, eta horiek irakurleak berak asmatuko ditu, inoren laguntzarik gabe. Nola? Marrazkien bidez edota li-

